

Manufaktura-industriako ETEen digitalizaziorako sarrera



IZENA EMAN HEMEN

– Datak eta ordutegia

Osteguna, Martzoak 7. 9:30etatik 13:30etara.

– Formatua

Aurrez aurrekoa.

– Lekua

Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroa (CFAA), 202. eraikina, ELKARLAN aretoa. Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoa.

– Iraupena

4 ordu.

– Plazak

30 pertsona.

– Norentzat

- Honako hauek ezagutzeko beharra edo interesa duten 10 langile baino gehiagoko manufaktura-industriako ETEentzat soilik:
 - digitalizazioak ekoizpen-prozesuan eta/edo kudeaketa-sistemetan duen potentziala.
 - nola ekin proiektu bati eremu horretan.
- Produkzio-prozesuko barne-digitalizazioko proiektuen kudeatzaileak, ekoizpen-zuzendaritzak, fabrikazio-zuzendaritzak eta profesional arduradunak.

* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

Ikaskuntza-helburuak

Prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak hauek dira:

- Industria-digitalizazioaren esparrua ezagutzea, industria-arloko ETEentzat duen potentziala azaltzea eta enpresaren digitalizazio-proiektu bati nola ekin erakustea.
- Fabrika-plantaren mailan produkzio-ingurunea digitalizatzearen potentziala, alderdi nagusiak eta jardun-arloak azaltzea.
- Kudeaketa-prozesuak digitalizatzeko aukerak eta abantailak erakustea, bai eta industriako ETEetan lotutako eta sortutako datuak ere.

* Ondoren fabrikazio-laboregira bisita egiteko aukera egongo da.

Prestakuntzaren edukia

- Zer da digitalizazioa?
- Lantegi batean zer digitaliza daitezkeen eta zer abantaila ekar ditzakeen bi arlotan:
 - produkzio-prozesuen eta makinaren eremuan.
 - kudeaketa-/informazio-sistemen eremuan, eta horien integrazio bertikala eta horizontala.
- Nola heldu digitalizazio-proiektu bati tailer batean.
 - Etapa nagusiak.
 - Dauden metodologiak.
- Diagnostiko orokorreko ariketa (AFMren T1000 autodiagnostikoko metodoaren bidez).
- Hurbileko kasu praktikoak azaltzea.

ERAKUNDE LAGUNTZAILEA: AFM.

Norekin



Nerea Aranguren

Ideko-ko zuzendari nagusia/Danobatgroupeko Berrikuntza zuzendaria.

20 urte baino gehiagoko eskarmentua du fabrikazio aurreratuaren esparruan lan egiten duten taldeen gidaritzapean, beti ere berrikuntza ardatz nagusi izanda. Berrikuntza estrategikoan doktorea, industria antolaketako ingeniaria eta finantza zuzendaritzan eta negozioetarako adimen artifizialean aritua.